

NUEVOS EXTRACTOS

DE LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS AMIGOS DEL PAÍS
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA



Discursos pronunciados en el Acto de Ingreso
VALEN MOÑUX URIBESALGO
Amigo de Número

Suplemento 27-G del Boletín de la RSBAP

SEMINARIXOA - BERGARA

2023-09-23



Miguel Angel Elkoroberezibar, EAeko Adiskide Numerarioa
Ainhoa Lete, Bergarako Alkate-ordea
Valen Moñux, Adiskide Numerario Berria
Luis Elicegui, EAeko Lehendakaria Gipuzkoan
Harbil Etxaniz, EAeko Adiskide Numerarioa
Juan Bautista Mendizabal, EAeko Adiskide Numerarioa





SEMINARIXOA





HARRERA HITZAK / PALABRAS DE RECEPCIÓN

MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

EAEko Adiskide Numerarioa

Amigo de Número de la Bascongada

Eguerdion

Valen Moñux laguna aurkezteko maitasunaz berba egin behar dugu.

Antzerki eta musika amateurra, horixe zara zu, “amateurra”, (frantsesetik datorren hitz horrek *maite duena* esan nahi baitu). Antzerkia eta musika maite ditu Valenek, eta Euskal Herrian ia inork ez bezala biak ezkontzea lortu du, euskarazko antzerki musikala landuz eta sustatuz.

Amateur terminoak badu bere etiketa, kalitate eta eskarmentu gutxikoa bezala hartzen da sarritan ... baina ez da zure kasua, Valen. Ipintza institutuko ospakizunetako oholtzan aurkezpenak egin edota *Grease* musikalaren parodia antzeztu zuen gazte hark ibilbide luze bezain oparoa izan du antzerki musikalen esparruan; 1989ko *San Martzial Estanpa* hartatik gaur egunera arte. Zure etxeakoak, Marije, Miriam eta Andoni, beti izan dituzu alboan bidelagun, konplize.

Borondatez eta denbora luzez egindako lan guztia akaso behin edo hainbatetan antzeztuko da, baina bere oihartzunak luzaroan iraungo du.

Norbere garapen eta gozapenaren gainetik, taldearen erai-kuntza azpimarratu beharko Valenen jarduera artistikoan; taldearen eraikuntzaz ari garenean, ehunka lagunen parte hartzeaz ari garenean, herrigintzaz ari gara. Herriarekin, herriarentzat. Herriarekiko atxikimendua, konpromisoa ... Bergara herriaren maitalea da Valen, amateurra.

Eta kontuz, amateurra ez da ezinbestez oholtza gainean aritzen dena soilik, ikusleak edo entzuleak ere amateurak gara, ezinbesteko antzerki eta musika zaleak. Oholtza gainekoek eta eserlekuetakoek bat egiterakoan, nortasun pertsonala eta kolektiboa garatzen ari gara.

2009an *Miserableak* musikalaren berrestreinaldia egin zenean, Bergarako Musika Eskolaren 25. urteurrenean, (estreinaldia 1994an izan zen) *Berria* egunkariko Agus Perez antzerki kritikoa zera nabarmendu zuen bere artikuluan (2009-05-12): “Emanaldia amaitutakoan lehertu egin da ikusle guztien eskerona: hamabost minutuz egon gara txaloak jotzen, eta azkeneko kantaldia bizpahiru aldiz errepikatu dute orkestrak eta abesbatza osoak. Bis haietatik, aldiz, musikaren edertasuna baino gehiago artista guztien zoriona gogoratuko dugu beste ezeren gainetik.” Arrazoia du kazetariak, beti izan da horrela; horren lekuko izan naiz ni.

Eszenatokia beti da eztabaidarako, tentsioetarako, bilaketarako eta egia deskubritzeko lekua. Antzerkia gizarteak bere buruari buruz irudikatzen duen drama da, bere buruaz jabetuz eta bere identitatea eraikiz eta aberastuz. Herriek eta hiriek sorkuntza-guneak izan behar dute, identitate kulturala garatzeko hazitegia.

Identitatea desberdintasunetik elikatzen da. Norbera munduaren parte delako da, baina denetik desberdina delako. Existitza desberdina izatea da. Sorkuntzak desberdinak elkartzen ditu, eraldaketa sozialerako tresna bilakatuz.

Eraldaketa horretan zeurekin batera aurrera egiteko prest gaituzu Euskalerraren Adiskideen Elkartean eta guretzat ohore handia da zu adiskide numerarioa izatea.

Eskerrik asko

Bergarako Seminarixoan, 2023-09-23

**IBILBIDE LABURRA EUSKARAZ
TAULARATUTAKO ANTZERKI
MUSIKALEN HISTORIAN ZEHAR.
MUSIKALEN TRADIZIOA BERGARAN**

VALEN MOÑUX URIBESALGO

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea

Adiskide Numerarioa

Sarrera Ikasgaia

SEMINARIXOA - BERGARA

2023-09-23

Niretzat ohore bat izan zen eta deskribatu ezin dudan zoriontasuna eman zidan Seminarixoko eszenatokira igotzeak eta, batez ere, Euskal Herriarentzat hain garrantzitsua den eta sortu zenetik Bergarako historiarekin hain lotura estua izan duen Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen numerarioa izendapena jasotzeak.

Ekitaldia 2023ko irailaren 23an gertatu zen eta behartuta nago aipatzera mahaian egon ziren lagunak: Elkarteko zuzendaria, Juan Bautista Mendizabal; Bergarako alkate-ordea, Ainhoa Lete; Gipuzkoako Bascongadako batzordeko lehendakaria, Luis Elicegui; eta adiskide numerarioa, Miguel Angel Elkoroberezi-bar.

Nire izendapena musikaren eta antzerkiaren munduan egin dudan jarduerarekin dago lotuta, zalantzarik gabe. Horregatik, sarrera-ikasgaiaren formatua eta edukia erabakitzean, nire lehen aukera ikus-entzunezko eduki garrantzitsu batekin hitzaldi bat egitea izan zen. Erraztasunez mugitzen naizen bitartekoa hautatu nuen, Bascongadaren ohiko ekitaldietako formatu akademikoa saihestuz. Oso eskertuta nago izendapen honen antolaketan parte hartu duten pertsoneri, hala nola Harbil Etxaniz eta Julian Serranori, sarrera modu atipiko baina, aldi berean, niretzat oso eroso den formatu honetan egiteko baimena emateagatik.

Egia esan, 20 bideo baino gehiago eta ia 100 argazki dituen ikasgai bat inprimatutako paperera eramatea ezinezkoa da, eta horregatik, Miguel Angel Elkoroberezi-bar nire adiskide eta kolaboratzailearen laguntzari esker, ohi ez bezalako aurkezpen-for-

matu bat adostu dugu: irakurleak esteka bat izango du irailaren 23ko nire hitzaldiaren ikus-entzunezko bertsio osoa ikusi ahal izateko.

Ikus-entzunezkoaren esteka:

<https://www.youtube.com/playlist?list=PLLnEBdUEBLn4o3Wui6BuEZ1WBoQ3PmcdL>